



Santurtziko alkate eta EUDALen ordezkaria gonbidatu gisa joango da gerrako umeen omenez Saint-Georges de Oléron-en eta Arroxelan egingo diren ekitaldietara

Bilbon, 2012ko urriaren 11n. Frantziako Arroxela eta Saint-Georges de Oléron udalerriek, gaur eta bihar, urriaren 11n eta 12an, oroitzapenezko zenbait ekitaldi egingo dituzte 1937ko Gerra Zibiletik ihes eginez Frantziara eraman zituzten umei omenaldia egiteko. Alkatea EUDAL-Euskadiko Udaleen Elkartearen Batzorde Eragilearen ordezkari gisa joango da.

Ekitaldi hauek ebakuazioaren 75. urteurrenaren ospakizunarekin bat egin dute, eta ekimen honetan Bilboko Frantziako Kontsulatua eta Gerra Zibileko Ebakuatu Erretiratuen Elkarteak parte hartu dute. Izan ere, azken elkarte horretako kideei zuzenduko zaizkie omenaldiak, hain zuzen ere, gure historiako pasarte tragiko honen protagonista izandakoei.

Gaur goizean bertan, Olérongo irlak omenaldietako lehenengoa hartu du. Gertatukoari buruzko hitzaldi bat antolatu da, eta bisita egin da “Maison Heureuse” delakoaren antzinako lokaletara, irlan errefuxiatutako umeak hartu zituen lokaletara, alegia.

Omenaldia aukera paregabea izan da Oléron eta Santurtziko alkateek topaketa egiteko, Frantziako Saint-Georges de Oléron eta Euskadiko Santurtziko udalerriek bat egiteko. Alkate frantziarrak aukera baliatu du bere homologoari gonbit egiteko bi udalerrien artean anaitasunezko harremana ezartzeko, mugaz gaindiko harreman adeitsu baterako

oinarriak ezarri ahal izateko, kontuan izanda, gainera, bi herriek marinel-iragana partekatzen dutela.

Ekitaldian, halaber, Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa Giza Eskubideen zuzendariak, Gerra Zibileko Erretiratuen Elkartearen presidenteak eta Pays Marennes-Oléronen presidenteak ere hartu dute parte. Erakundeetako ordezkarien esku-hartzeen ondoren, oroitzapenezko plaka desestali da “Maison Heuresse” delakoa egon zen lekuan.

Arratsaldean, erakundeen ordezkariak Arroixelako *La Pallice* portura joan dira, Frantziako udalerri horretako udalak antolatutako omenaldian parte hartzeko. Udal horrek Frantzian eta Belgikan hartutako 19.000 umeei egin nahi izan die omenaldia. Oroitzapenezko jardunaldia amaitzeko, erakunde-harrera egingo dute Arroixelako udaletxean. Bertan, Santurtziko alkateak, Ricardo Ituartek, oroitzapenezko hitz batzuk eskainiko dizkie omendutakoei, Euskaditik, gehienbat, Santurtziko portutik, eraman zituzten umeei. Horrez gain, Euskadiko udalerrien konpromisoa agertuko du jendaurrean, gertatutakoaren memoria historikoa gordetzeko, herri gisa etorkizuna eraiki ahal izateko beharrezko elementu gisa.

Ekitaldiek bihar jarraituko dute Talence udalerrian, “Gernikako beste arbola” delakoaren irakurketarekin; era berean, tokiko arduradunek ere parte hartuko dute.